

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

1 positibo berri
2.277 positibo guztira*

1.596 hildako
18 UCIn EAEn

*Hernanin 63 Astigarragan 21

NAFARROAN

0 positibo berri
5.352 positibo guztira

518 hildako
6 UCIn
Sendatuak: EAEn 17.612 Nafa. 8.117

San Joanetarako 'Kulturaz gozatu, elkar zaindu' kultur emanaldiak antolatu dira lau egunetan

Aforo mugatua eta segurtasun neurriekin kultura kalera aterako da berriz ere larunbatean, ekainaren 23an, 24an eta 25ean; musika, dantza, bertsoak eta omenezko suzirikin.

HERNANI KULTURA

San Joan festak bertan behera geratu dira aurreko COVID-19ak bizimodua hankaz gora jarri eta gero. Ezingo dira festak antolatu eta ezingo dira bizi eta gozatu nahi bezala, baina kulturak egun horietan izango du merezi duen lekua Hernanin.

Jai Batzordeak eta Udalak elkarlanean kultur jarduerak antolatu ditu «hernaniarron bizipoza eta ilusioa berreskuratzen laguntzeko. Aldi berean, ordea, COVID-19aren eraginez hil diren pertsona guztiak eta haien senitartekoak izango dira gogoan. Baita, urtero herrian egon ezin diren hernaniarrak ere» adierazi du Xabier Lertxundi Hernaniko alkateak.

Honela, herriko kultur eragileek eta kultur arduradunek elkarlanean egitarau bat prestatu dute, non musika eta bertsolariak izango diren protagonista nagusiak ekainaren 23, 24 eta 25ean.

Larunbatean, bisitak eta 'Iceberg' ikuskizunaren emanaldia Chillida Lekun

Hala ere, egitarau horretan, ekainaren 20an, larunbatean, abiatuko da *Kultura gozatu, elkar zaindu* izenburupean udari ongietorria emateko antolatu den ekitaldi sorta. Chillida Lekun izango den *Iceberg* dantza ikuskizunak zabalduko du, larunbatean.

Bi saio izango dira, bat eguerdiko 12:00etan eta bestea, gaueko 20:00etan. Hernaniarrek lehentasuna izango dute ikuskizun honetan, aforoaren erdia baino gehiago hernaniarrentzat erreserbatuta dagoelako. Sarreak ostiralera arte erosi daitez-

ke, Biteri kultur etxean.

Iceberg ikuskizuna Nagore Legarreta argazkilari hernaniarrak, Myriam Pérez Cazabon dantzariarekin batera sortu du.

Herrian bertan hiru egunez musika protagonista

Ekainaren 23an, 24an eta 25ean izango da herrian bertan kulturaz eta giro onean gozatzeko aukera. Koro Etxeberria Kultur zinegotziak, Biterin atzo, egin zen aurkezpenean esan zuenez, «Hernanin sortzaile asko eta talentu haundikoak dauzkagula jakina zen», eta egoera honetan inoiz baino ageriagoan gelditu da. Hartara, herriko sortzaileei beraiei eskerrak eman nahi izan dizkie, «egoera berezi honetan izan duten jarrera prestuarengatik», nahiz eta alarma egoerak behartuta, «nolabaiteko inprobisazioa eta etengabeko aldaketak» nagusi izan diren.

Jai Batzordearekin elkarlanean landutako ekitaldiak izan direla nabarmendu du Etxeberriak, eta bidean izan diren «zailtasun guztien gainetik emaitza oso txukuna dela iruditzen zai-gu».

Nagore Irastortza kultur teknikariak aurkeztu zituen antolatu diren musika emanaldiak. Hasteko San Joan bezperan alkatearen agurra jarraitu daiteke, 11:45etan, streaming bidez Udaleko webgunean edo irrati bidez FM 91,8 frekuentzian. Eguerdian omenezko suziriak botako dira auzoetan eta txistulariak, musika banda eta musika eskolako kideak alaituko dituzte auzoak.

Arratsaldean, 17:00etan eta 19:30etan, familientzako bi musika emanaldi eskainiko dira



Nagore Irastortza eta Koro Etxeberria Biteri kultur etxean egitarauarekin.

EGITARAUA

Ekainak 20, larunbata
10:00-14:00/18:00-22:00: Chillida Lekura bisitakt.

12:00etan eta 20:00etan: *Iceberg* ikuskizunaren emanaldia. Nagore Legarreta argazkilariak Myriam Díaz Cazabon dantzariarekin sortutako emanaldia da.

Sarrerak salgai daude ostiralera arte Biterin. Ordainketa txartelaren bidez soilik. Prezioak: helduak 8 euro; Gazte, langabetu eta erretiratuak 5 euro; Haurrak doan.

Ekainak 23, asteartea
11:45: Alkatearen agurra. Zuzen-

nean jarraitu daiteke streaming bidez www.hernani.eus webgunean edo irrati bidez FM 91,8 MHz irrati frekuentzian.

12:00: Omenezko suziriak auzoetan. Txistulari Banda, Musika Banda, Musika Eskolako musikariak.

17:00-19:30: *Epa Txiki*. Demode Quartet. Musika. Emanaldia familientzat kiroldegiko pistan. Bi saio izango dira.

20:00: Musika Banda eta Txistulari Banda kaleetan, auzoetan...

Ekainak 24, asteazkena
09:00: Diana kaleetan, auzoetan...

12:00: Musika Banda eta Txistulari Banda kaleetan, auzoetan...

18:30: Bertso jaialdia Atsegindegin. Maialen Lujanbio, Nerea Elustondo, Agin Laburu, Beñat Gaztelumendi. Gai-jartzailea, Eli Pagola. Hernaniko Bertso Eskolak antolatzen du.

20:00-21:15: Musika Kilimak eta Xabi Solano Maizarekin kiroldegiko pistan.

Ekainak 25, osteguna
20:00: Musika Bitartean eta Iñaki Salvador, Garbiñe Insausti eta Nahia Vallerekin kiroldegiko pistan.

kiroldegiko pistan *Epa Txiki* izenburupean eta Demode Quartet taldearekin. Amaitzeko 20:00etan musika banda eta txistulari banda ibiliko dira auzoetan barrena.

Bertso jaialdia, ekainaren 24an
San Joan egunean, ekainaren 24an, lekukoa bertsolariet hartuko dute. Atsegindegin ariko dira bertsoan Maialen Lujanbio, Nerea Elustondo, Agin Laburu eta Beñat Gaztelumendi, Eli Pagola

gai jartzaile lanetan ariko dela. 18:30etan hasiko da saioa.

Eguna amaitzeko musikak ere izango du indarra. Kilimak talde hernaniarrak eta Xabi Solano musikariak kiroldegiko pistan kontzertua eskainiko dute.

Ekainaren 25ean ere kontzertua egongo da ordu berean, 20:00etan, eta leku berean, baina kasu honetan Bitartean eta Iñaki Salvador, Garbiñe Insausti eta Nahia Vallerekin batera ari-

ko dira.

Ekitaldi guztiak mugatuak dira. Herritarrek exerita egon beharko dute eta segurtasun neurri guztiak bete beharko dituzte. Aurretik gonbidapena eskatu beharko da parte hartu ahal izateko www.hernani.eus webgunean, 943 55 29 62 telefono zenbakian edo email bidez hernanikultura@gmail.com helbidean. Eskaerak aforoa gaintzen badu, zozketa egingo da. **K**

MARI FE
ARRANDEGIA
NAGUSIA 36 943 550 489

OGI BERRI
OKINDEGIA
Rosa Morla
Kale Nagusia, 31
20115 ASTIGARRAGA
Tfn- 943 55 41 04 - 618 269 314
rmorlaluenago@yahoo.es

gse
Asesoreak
Aholkularitza eta
tramitazio
zerbitzua
Gudarien plaza, 13
Telfnoa: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
gse@gseasesores.net

Catalana
Occidente
Aseguruak
BAUTISTA
BIURRARENA
ETXEGOIEN
Atzieta 30 - Hernani
943 33 24 40

EGURALDIA GAUR Asteartean fronte hotz batek eragingo du eta eguraldiak okerra egingo du. Lainotuta egongo da eta zaparradak botako ditu, batez ere arratsaldean. **Min.13° / Max.18°**

BIHAR Giro nahasiak jarraituko du. Zeruan lainoak nagusituko dira eta noizbehinka zaparradak botako ditu; edonon egin dezake euria. **Min.14° / Max.17°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauetz: Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



Toldoak aterpe lanak egingo ditu udaran zehar.

Ikastolako toldoa larunbatean jarriko da eta udara osoan egongo da bertan

Umore Onako terraza eta udako ekintza desberdinetarako aterpe gisa erabili ahal izango da.

GOIZUETA IKASTOLA

Aurtengo udara berezia izango dela dudarik ez dago. Jende pilaketak saihestu eta aldi berean ongi pasatzeko, neurriak askotariakoak izan daitezke. Horien

artean, herriko eragileek proposatutako hau: normalean festetarako jartzen den ikastolako toldoa edo estalia udara osorako jartzea izan da.

Pasa den ekainaren 4an herriko eragileek (Udala, Umore Ona elkarte, Gurasoak, Gazteak, Etxerat...) egindako bileran hartu zuten erabakia.

Edariak kontsumitzeko terraza gisa erabiliko da Horrela, Umore Ona elkarte edariak kontsumitzeko terraza gisa erabiliko da eremu hau,

muntaia egin eta ondorengo egunetan irekiko baita elkarte (aurrerago zehaztuko dira data zehatza eta berau erabiltzeko neurriak).

Horretaz gain, udaran zehar burutu daitezkeen hainbat ekintzetarako edo euria egiten duenerako aterpe gisa ere ongi etorriko da.

Estaliaren muntaia larunbatean, ekainaren 20an egingen da, goizeko 08:30etan, eta herritar guztiak gonbidatuta daude bertara, denen artean lan xamurragoa izanen baita. **K**



Bideo bidez eta telematikoki egin da Zaharren Omenaldia.

Zaharrei Omenaldia, bideo bidez egin zaie aurten Astigarragan

ASTIGARRAGA GAIA Urtero, maiatzean, omenaldia egiten zaie herrian 80 urte-tik gora dituztenei. Hainbat elkartek parte hartzen dute omenaldi horretan: Gure Izarra

Elkarteak, Astigar Dantza Taldeak, Aiztondo Abesbatzak eta Txirriskla Txistulari Taldeak, udalaren babesarekin. Covid 19ak sortutako pandemiaren ondorioz, ezin izan da urteroko

omenaldia antolatu. Hori dela eta, herriko hainbat txistulari, dantzari, bertsolari eta abeslari bideo txiki bat eskaini nahi izan diete 80 urtetik gorako astigartar guztiei.

Atsedena, udazkenara arte Gorabeherak-ek

Bost kapitulu izan ditu lehendabiziko denboraldiak eta ekainaren 26an 'IXA' bigarren webseriea jarriko da martxan.

URUMEA TOKIKOM

Lehenengo denboraldiko bost kapituluak zabaldu ondoren, eta taldeak hurrengoetarako ideiak biltzen dituen bitartean, atsedena hartu eta udazkenean itzuliko da *Gorabeherak* websai-

laren bigarren denboraldia.

Ttap aldizkari digitalak Tabakalerako 2deo Laborategiaren eta Bertoko Igogailuak enpresaren laguntzaz ekoizitako webserie hau berritzailea da alderdi bat baino gehiagotan.

Eduki mota hori gustukoa delakoan, ekainaren 26an beste webserie bat ekarriko da astero. *IXA* webseriea ere Tabakalerako 2deo Laborategiaren laguntzaz sortutakoa da, eta gizartea eta teknologiaren arteko harremana aztertzen du misterio eta akziozko atal laburren bidez. **K**

Igande eta jai egunetan, 22:00etan busa

EREÑOTZU AUTOBUSA

Igande eta jai egunetan, gauetan, Hernatik Erefiotzura datorren autobusa gaueko 22:00etan aterako da, beti bezala Txirrita kaletik. Gainontzeko egunetan orain arte bezala 21:45etan aterako da.

Ostiralean liburuak, Goizueta eta Aranora

ARANO-GOIZUETA LIBURUTEGI IBILTARIA

Aste honetan jarriko da martxan Areso, Goizueta eta Aranoko liburutegi ibiltaria. Aresora ostegunetan iritsiko da 14:15etan eta ostiralean Goizueta eta Aranoko buelta egingo du 11:30 eta 12:30etan.

Udalekuetarako haur guztiak onartu dira

ASTIGARRAGA XAGUXAR

Xaguxarrek antolatzen dituen udalekuetara izena eman zuten haur guztiak onartu dira, beraz ez da zozketa beharrik izan. Ordaintzeko epea gaur eta ostirala artean da. Garrantzitsua da epe barruan egitea, ez bada ordainketa egiten plazarik gabe geratuko dira.

Ezohiko Plenoa, gaur 19:00etan

ASTIGARRAGA UDALA

Ezohiko Plenorako deialdia zabaldu du Astigarragako Udalak, gaur 19:00etarako. Telematikoki izango da hori ere; eta gai bakarra daukate lantzeko: Hiri Antolamendurako Plan Orokorra idazteko zerbitzuaren kontratua.

Eskelak


Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duen eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

XII. URTEURRENA

Andoni Moreno Etxarte

*Beti gure bihotz eta oroimenean.
Maite zaitugu.*

ETXEKOAK



Hernanin, 2020ko ekainaren 16an

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**